

Zenbat kostatzen den haurrak haztea Euskadin 2024.

*Inflazio metatuak haurrak eta nerabeak
dituzten familietan duen eragina.*



Save the Children

Txosten hau **KSNET, Knowledge Sharing Network, S.L.**
enpresak egindako azterketa kuantitatiboan oinarrituta egin da.
Hauek dira ikerketa-taldeko kideak: Elena Costas, Mireia Álvarez, Laura Muñoz eta María Sánchez.



gizarte eta Politika Intzidentziaren ataleko zuzendaria: Catalina Perazzo; *hautzaroko Politiken ataleko arduraduna:* Carmela del Moral; *egilea:* Diego Santamaría;
Save the Children Euskadiko zuzendaria: Charo Arranz; *politika Intzidentziaren ataleko Euskadiko arduraduna:* Irati Álvarez Llano
zuzentzailea eta Euskadiko komunikazio-arduraduna: Naroa Salgado; *arte eta maketazioa:* Óscar Naranjo/Raúl Lucas; *ilustrazioak:* Germán Gullón/VALBHY Design.



Argitaratzailea:

Save the Children Espainia
2024ko azaroa

Aurkibidea

Laburpena	5
Funtsezko mezuak	6
Sarrera	7
Zergatik da garrantzitsua 2024an haurrak haztea zenbat kostatzen den kalkulatzea?	9
Zenbat kostatzen den haurrak haztea Euskadin 2024an	13
<i>Nola kalkulatzen da? Gastu-partidak definitzea eta kalkulatzea</i>	13
<i>Hazkuntzaren kostuaren bilakaera Euskadin 2024an (2018koarekin eta 2022koarekin alderatuta)</i>	16
<i>Hazkuntzaren kostua, adinaren arabera</i>	19

Inflazioaren eraginaren azterketa familia-unitatearen errentaren arabera: iristen ez direnak eta gero eta zailtasun handiagoak dituztenak	24
Hazkuntzaren kostua arintzea: lanean jarraitzeko deia	26
1. jarduketa-ildoak: hazkuntzarako prestazio unibertsala hedatzea	27
2. jarduera-ildoak: DSBEn eta BGDren baterako babesa indartzea, haurtzaroaren ikuspegitik	29
3. jarduera-ildoak: Haurrei Laguntzeko Osagarria berriz diseinatzea eta berriz baloratzea adin handieneko tartetarako	29
4. jarduera-ildoak: prestazioen eguneratzeak hazkuntzaren kostuaren adierazleekin lotzea	30
5. jarduera-ildoak: etxebizitza duina eta eskuragarria bermatzea	31
6. jarduera-ildoak: Haur Bermearen Euskal Estrategia garatzea, Euskadin berriazko plan operatibo bat zehaztuz.	31
Metodologiari buruzko eranskina	32

Laburpena

Euskadin dozenaka mila familiak aurre egin behar dioten erronka ekonomiko nagusietako bat haurrak hazteko kostua da. Pandemiaren aurreko (2018) eta prezioen igoeraren (2022) osteko kalkuluen ondoren, metatutako inflazioak Euskadin 2024an haur bat hazteko kostuetan duen eraginaren kalkulua berrargitaratu du Save the Childrenek, eta nabarmendu du egoera horrek familia ahulenei eragiten diela bereziki. Hainbat alor, hala nola elikadura, etxebizitza, hezkuntza eta garraioa zehatz aztertu ondoren, 2022. urtearekin alderatuta, hazkuntzaren hileko batez besteko kostua % 13 igo dela jotzen da, eta % 34 igo dela 2018. urtearekin alderatuta; hala, batez beste, seme-alaba bakoitzeko kostua 866 eurokoa da. Hazkunde horren arrazoi nagusia inflazioa da, familien funtsezko ondasun eta zerbitzuei neurritz kanpo eragiten baitie, hala nola etxeko hornidurei eta elikagaiei.

Txostenak, halaber, gastuak haurraren adinaren arabera xehatzen ditu, eta erakusten du kostuak handiagoak direla nerabezaroan, elikaduraren eta etxebizitzaren egokitzapenaren ataletako gastuek gora egiten dutenean. Gainera, alde handiak ikusten dira familiek estatuko autonomia-erkidegoen arabera aurre egin behar dieten kostuen artean. Hala, bada, hazkuntzarako hirugarren autonomia-erkidegorik garestiena da Euskadi, batez beste 866 euroko kostua baitu hilean, estatuko batez bestekoa (758 euro) baino % 14 handiagoa. Azterlanaren ondorioetan, hazkuntzari laguntzeko politika publikoak indartzeko deia egiten da, hala nola ardurapeko seme-alaba bakoitzak 17 urte bete arteko etapa osoa hartuko duen prestazio unibertsala ezarriz eta Europako Haur Bermea abian jarritz, haurren pobrezia murrizteko eta familien ongizatea hobetzeko.

Funtsezko mezuak

1.

Azken bi urteetan, Euskadin metatutako inflazioak % 13 garestitu du hazkuntzaren kostua Euskadin, eta 866 eurokoa da hileko eta seme-alaba bakoitzeko.

2.

Haurrak dituzten familiek inflazio espezifiko bat jasaten dute, batez bestekoa baino handiagoa, txosten honetan aztertutako hazkuntza-kostuen ondorioz. Gainera, hazkuntzaren kostua handiagoa da nerabezaroan.

3.

Euskadin, familien % 14k (29.307) ezin dio aurre egin hazkuntza-kostuari, ezta beren diru-sarrera guztiak horretara bideratuta ere.

4.

Gainera, Euskadiko familien % 42k (89.675 familia) zailtasunak ditu kostu horiek ordaintzeko; izan ere, errentaren erdia baino gehiago hazkuntza-gastuetara bideratu behar dute, etxeke errenten gero eta zati handiagoa hartzen baitute gastu horiek.



Sarrera

Haur baten etorrera eta haziera da pertsona baten bizitza gehien aldatzen duen esperientzietako bat. Kontua ez da soilik familian kide berri bat onartzea eta kide horrek zaintza espezializatuak eta etengabeko arreta behar izatea; horrez gain, etorrera horrek kostu ekonomikoak ekarriko dizkigu, eta kostu horiek gure gain hartu behar ditugu. Hasiera batean, pixoihaiek, orgek eta jostailuek hartuko dituzte gastu gehienak; aurrerago, eskola-urteetan, hezkuntza-materialetara, curriculumetik kanpoko jardueretara eta teknologietara zuzenduko dira gastuak. Hala, bada, hazkuntzaren kostua faktore erabakigarria izaten da familia askorentzat. Gastu horiek aldatuz joaten dira haurraren adinaren arabera, bai eta herrialdearen edo erkidegoaren testuinguru ekonomikoaren eta sozialaren arabera ere.

Euskadin, 14 urtetik beherako haur eta nerabeen % 10,2 mantentze-pobreziako egoeran bizi da, hau da, haien familiek ez dute diru-sarrera nahikorik oinarrizko beharrei aurre egiteko (PGDI, 2022). Zenbait elikagai erosteari (haragia edo arraina, esaterako) edo zerbitzu jakin batzuk kontratatzeari (dentista, okulista edo haur-eskola) uko egiteak arazoak ekar ditzake etorkizunean haurrentzat, hala nola proteina falta, ikusmen- edo aho-hortzetako arazoak, edo errendimendu akademiko txikiagoa.

2023ko Bizi Baldintzei buruzko azken Inkestaren arabera (BBI 2023), EAEko ia 65.700 haur eta nerabe (% 18,8) pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketako arriskuan zeuden. Arazo bat da, haur eta nerabe horien egungo eta etorkizuneko ongizatea oztopatzen duena, eta familia askok aurre egin behar dioten erronka ekonomikoaren tamaina azpimarratzen du. Alderdi ekonomiko eta sozialei dagokienez, gizarte osoari eragiten dio.

Egoera horien kronifikazioa saihesteko, beharrezkoa da familiek baliabide gehiago izatea, eta, horretarako, beharrezkoa da familia horiei laguntzen jarraitzea, datu erreal eta eguneratuetan oinarritutako politika publikoen bidez. Euskadin, duela gutxi, hazkuntzari laguntzeko zenbait neurri positibo hartu dira familiei laguntzeko, baina oraindik ez dira nahikoa, eta osatu egin behar dira, Euskadiko familia askok bizi duten errealitatera egokitzeko.

Hazkuntzaren kostua igo egiten da familiek behar dituzten ondasun eta zerbitzuen prezioen igoera bakoitzarekin, eta zailtasun gehigarri bat dakar horrek milioika etxetara, bereziki –baina ez soilik–, ahulenetara. Bi urte igaro dira azken kalkuluak egin zirenetik. Urte horietan, Euskadik inflazio-prozesu metatu handia izan du, % 9,3koa, eta gabezia sozial eta material larrien tasek erakusten dute familia askok zailtasunak dituztela seme-alabak hazteko.

Testuinguru horren aurrean, Euskadin 2024an hazkuntzak duen kostuaren kuantifikazio bat aurkeztu du Save the Childrenek, familiek beren seme-alaben bizitzako etapetan aurre egin behar dieten gastuen ikuspegi zehatza emanaz. Horrela, 2018an eta 2022an egindako analisiei jarraipena eman nahi izan diegu eta eguneratu egin ditugu, hazteko beharrezkoak diren produktuen saskian izandako aldaketak eta funtsezko ondasun eta zerbitzuen prezioetan berriki izandako igoerak izan duten eragina kontuan hartuta. Azterketa honen bidez, oinarri sendoa eskaini da Euskadin familiei benetan laguntzeko eta haurren ongizatea sustatzeko politika publikoak eztabaidatzeko eta garatzeko.

Honela egituratu da txostena. Gaur egungo testuinguruan hazkuntzaren kostua kalkulatzeko duen garrantziari buruzko hausnarketa zehatz batetik abiatu gara. Praktika hori instituzionalizatzeko deia egiten dugu, familia-politikak diseinatzeko eta kuantifikatzeko erreferentziazko esparrua izan dadin. Horren ondoren, hazkuntzari lotutako gastu-partidak azaldu ditugu, 2024an partida horiek duten kostua kuantifikatzeko, eta inflazio-krisiaren ondoren izan duten bilakaera azaldu dugu eta adin-taldean eta autonomia-erkidegoaren arabera azterketa zehatua

ere egin dugu. Errentaren arabera familia-mota guztietan duten eragina aztertu ondoren, hazkuntzari laguntzeko politika publiko eraginkorragoen diseinua gidatuko duten funtsezko ildo batzuk proposatu ditugu.

Zergatik da garrantzitsua 2024an haurrak haztea zenbat kostatzen den kalkulatzeko?

Haurren eta nerabeen ongizateak gizarte osoaren garapenean laguntzen du, eta, beraz, funtsezkoa da politika publikoek babesa ematea. Egunero, familia askok ahal duten guztia egiten dute seme-alabak ingurune egoki batean haz daitezen, nahiz eta beti ez dituzten oinarritzko ongizate-baldintzak ziurtatzeko beharrezko baliabideak.

COVID-19aren pandemiaren geroztik, hainbat neurri abiarazi dira egoera hori arintzeko. Estatuan, lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) igoerak eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGG) sortzeak eragin positiboa izan dute diru-sarrera txikiak dituzten familietan. Euskadin, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) sistemaren 2022ko erreformak eta laguntza espezifikoek, hala nola 0 eta 3 urtera bitarteko adingabeak hazteko laguntzak (200 €/ hileko seme-alaba bakoitzeko), familien diru-sarrerak handitzen eta haien egoera hobetzen lagundu dute.

Hala ere, kanpoko faktoreek, hala nola inflazioaren bilakaerak eta etxebizitzaren, lehengaien eta energiaren prezioen igoerak, besteak beste, bizi-kostua garestitu dute, eta familia askok beren oinarritzko beharrak asetzeko eta hilaren amaierara iristeko duten gaitasunari eragin die.

Euskadin, 5 adingabetik 1 pobreziako edo gizarte-bazterketako arriskuan dago (BBI 2023). Kopuru hori, estatuko batez bestekoa (% 34,5) baino hobea izan arren, oso kezagarria da, eta beste adierazle garrantzitsu batzuei gehitzen zaie, hala nola:

Alde batetik, 2023ko BBIren datuek erakusten digute pobrezia-adierazle batzuk murriztu egin direla ia adin-talde eta familia-mota guztietan, 18 urtetik beherakoetan edo seme-alabak dituzten familietan izan ezik; kasu horietan, okerrera egin dute, batez ere familia gurasobakar amadunetan.

Pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden eta ardurapeko seme-alabarik ez duten familien ehunekoa % 14koa da Euskadin (ARPE 2023), eta zifra hori % 18ra igotzen da seme-alabak dituzten familien kasuan; familia gurasobakar amadunen kasuan (24.000 familia), berriz, % 36ra iristen da. Pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden familia gurasobakar amadunen ehunekoa ia puntu bat igo da 2022tik, seme-alabak dituzten familien kasuan bezala. Aldiz, seme-alabarik gabeko familien ehunekoa puntu bat inguru jaitsi da 2022tik.

Horrela, bada, joera kezagarri bati eusten zaio: haur-pobrezia gainerako biztanleei eragiten diena baino handiagoa da egiturari dagokionez, eta haurrak dituzten eta ez dituzten familien arteko aldea handitu egin da. Langabeziaren adierazlemakroekonomikoek eta errentek hobera egin badute ere, haur-pobreziak finkatuta jarraitzen du Euskadin, eta horrek kostua dakar gizartearentzat.

Haur-pobreziaren adierazle nagusien bilakaerak erakusten digu hartutako neurriak, positiboak izanik, ez direla nahikoak. Faktore batzuek politika horien irismena eta eragina mugatzen dute, eta gure ongizate-estatuak haur-pobrezia murrizteko duen gaitasuna oraindik ere mugatua izatea eragiten dute.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Euskadin gaitasun txikia dagoela haurrei ematen zaizkien laguntza publikoak banatzeko; izan ere, transferentzia

nagusiak kontributiboak dira (esaterako, erretiro-prestazioak edo langabezia-prestazioak), edo itzuli behar ez diren zerga-desgrabazioak dira; hortaz, errenta ertain edo baxuko pertsona askok ez dute horren onurarik jasotzen, edo hein txiki batean baino ez. Seme-alabak dituzten familientzako onura fiskalen sistema biztanleriaren sektore zabaletara iristen da, baina mesede handiagoa egiten die errenta handieneko familiei; beraz, joera erregresiboa du eta haurren pobrezia gainerako biztanleena baino neurri txikiagoan murrizten du, EBko beste herrialde batzuek lortzen dituzten emaitzen azpitik.

Bestalde, pobrezia-egoeran dauden familietara bideratutako laguntzek, hala nola BGGk, nahi baino estaldura-tasa txikiagoak dituzte. Laguntza horiek ez ezagutzearen, laguntzak eskatzeko labirinto burokratikoaren edo adieraz dezaketen estigmaren ondorioz, askotan, ez dira gehien behar dituztenengana iristen.

Gure datuek haurren pobrezia-aren egiturazko osagaia erakusten dute, bai eta belaunaldien arteko pobrezia-aren iraunkortasuna ere. Pobrezia oinordetzan jasotzen da; izan ere, zailtasun ekonomikoak dituzten etxeetan hazten diren haurrek aukera handiagoa dute handitzen direnean pobre izaten jarraitzeko, estatuko Haur Pobrezia-aren aurkako Goi Komisarioak adierazi duenez. Izan ere, ziurrenik, elikadura-gabeziak izango dituzte (adibidez, gehien hazten ari direnean proteina nahikorik ez jatea), nota txarragoak aterako dituzte eskolan (gaitasun berdina izanda, aukera gehiago izango dituzte ikasturtea errepikatzeko edo ikasketak uzteko), hotza jasango dute neguan; estres-egoerei aurre egin beharko diete etxean, beren osasun fisikoari eta emozionalari eragingo diete egoera horiek, eta baliabide gutxiago izango dituzte horiei aurre egiteko. Pobrezian hazteak bizitza osoan irauten duten orbainak sortzen ditu. Haurtzaroan baliabide gutxirekin bizitzeak kalitate txikiagoko lanak izatea dakar, bai eta osasun-arazo handiagoak izatea eta soldata baxuagoak izatea ere.¹

1 Haur Pobrezia-aren aurkako Goi Komisarioa (2023). Haur-pobrezia-aren kostua Espainian.

Seme edo alaba bat haztea poz-iturri da, baina garestia ere bada, eta horrek eragina du, besteak beste, seme edo alaba bat izateko erabakian. Euskal Autonomia Erkidegoan, emakume bakoitzeko 1,25 seme-alaba jaiotzen dira (Eustat 2023); Europako tasarik txikienetakoa da, eta nahi den ugalkortasunaren eta ugalkortasun efektiboaren arteko arrakala handienetakoa du. Dinamika horietan, arrazoi ekonomikoek eta lanarekin edo kontziliazioarekin lotutakoek garrantzi handia dute.

Beraz, pobreziaren zikloa hautsi ahal izateko eta familiei nahidituztenseme-alabak izaten laguntzeko, politika publikoek hazkuntzarako kostuak konpentsatzeko laguntza eraginkorra eskaini behar dute, babestu beharreko ondasun publikotzat hartuta.

Hazkuntzan laguntzeko mekanismo publiko horiek ondo diseinatu ahal izateko, beharrezkoa da, lehenik eta behin, haztea zenbat kostatzen den jakiteko informazio egokia izatea. Hazkuntzaren kostua kalkulatzeko ez da informazio-ariketa hutsa, haurtzaroko politika onenak diseinatzeko dugun tresnarik erabilgarrienetako bat baizik. Definitzen ditugun tresna publikoak herritarren benetako beharretara egokitzen ez badira, ezer gutxi egin ahal izango dute haien bizi-kalitatea hobetzeko. Ariketa hori haurren pobreziaren aurka borrokatzeko eta hazkuntzaren aldeko politika publiko eraginkorragoak diseinatzeko eta ebaluatzeko oinarria da.

Zenbat kostatzen den haurrak haztea Euskadin 2024an

Nola kalkulatu da? Gastu-partidak definitzea eta kalkulatzea

2024an Euskadin haur bat hazteak dakarren kostua kalkulatzeko, oinarrizko premien aurrekontu bat egiten dugu, adinaren arabera.² Lehenik eta behin, oinarrizko ondasunetaz erbitzuensaskibat definitzen da, eta gutxienez kontsumo gisa finkatzen dira erakundeek³ gastu-partida bakoitzerako gomendatutakoak. Bigarrenik, Familia Aurrekontuen Inkestako (FAI 2023⁴) datuak erabiltzen dira, eta datu horiek beste datu-iturri batzuen bidez lortutakoekin bateratzen dira - estatu osoan dauden dendetako prezioak edota eskuragarri dauden bestelako txosten eta agiriak.

2 Kalkulurako metodologiaren deskribapen xehaturako, ikusi eranskina.

3 Adibidez, Espainiako Pediatria Elkarte (AEP), Osasunaren Mundu Erakunde (OME) edo Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte (OCU).

4 Familia Aurrekontuen Inkestaren azken edizioako datuak 2023ko abendukoak dira. Gainerako datu-iturriekin batera, hala nola egungo prezioekin, 2022an hazkuntzaren kostua azken aldiz eguneratu zenetik izandako inflazio-aldia hartzen du.

> Hauek dira gastu-partidak

1. Elikadura



Espainiako Pediatria Elkarteak gomendatutako dietaren kostua da, adin-tarte bakoitzari egokitutako kantitateetan, eta kontuan hartuta OMEk aholkatutako edoskitza-roa.

2. Higieneaa



Higienezako produktuen saskiaren kostua, etapa bakoitzeko haurren beharren arabera, hasi hasierako urteetako pixoihal eta paper-zapi bustietatik, eta nerabezaroko desodorante, krema, konpresa edota tanpoietara.

3. Arropa eta oinetakoak



Adin bakoitzerako egokia den jantzi eta oinetakotan oinarrizko kopuru baten kostua zein izan daitekeen kalkulatu da; zenbat eta txikiagoak izan haurrak, orduan eta azkarrago aldatzen dira neurriz, eta, beraz, jantzi eta oinetakoak aldatzeko beharra ere handiagoa da.

4. Hezkuntza



Haur eta nerabe guztiak eskola publikoetara doazela jo da, kalkulu hauetarako. Garrantzitsua da ez ahaztea 0-3 urte bitarteko haurrak haur-hezkuntzako zentroetara joan daitezkeela. Dena den, zentro horiek ez dira doakoak, eta haurrak horietara eramateko erabakia, familia askoren kasuan, lana eta bizimodu pertsonala bateratu beharraren ondorio da, eta ez hezkuntzaren ikuspegitik hartutakoa; horregatik, partida hau txosten honetako kontziliazioaren atalean sartu dugu. Hezkuntza-gastua kalkulatzekoan, honako partida hauek hartu dira kontuan: eskola-jantokia, ikasliburuak, eskolako materiala eta eskola-garraioa.

5. Aisialdia eta jostailuak



Kontuan hartu dugu jostailuen beharra gero eta handiagoa dela 0 urtetik 12ra bitartean. Adin horretatik aurrera, toki handiagoa hartzen dute aisiak eta teknologiko eta telefoniako produktuek.

6. Osasuna



Familiak osasun-sistema publikoa erabiltzen dutela jo da. Hor sartzen ez diren beste kostu batzuk ere aintzat hartu dira, hala nola gomendatzen diren txertoak, estaldurarik ez dutenak, odontologia, betaurrekoak eta botikak.

**7. Altzariak
eta tresneria**




Hasierako uneetan, beharrezkoak dira sehaskak edota haur-kotxeak, eta ondorengo urteetan, ohea, burukoak eta izarak, etab.

8. Etxebizitza



Seme-alabarik ez izatetik seme-alabak izatera dagoen aldea kalkulatu da (gela bateko etxetik bi gela edo gehiagoko etxea izatera). Haurren etxebizitza-kostuari esleitu zaio alde hori, eta kostua familia motaren arabera zenbatu da.

**9. Etxebizitzaren
gastu arruntak**



Zerbitzuen saski honetan aintzat hartu diren atalak honako hauekin daude lotuta: uraren kostuak, zaborren tasa, saneamendu-tasa, komunitate-gastuak, gasa eta argindarra.

10. Garraioa



Probintziako hiriburu guztietan garraio publikoak duen prezioaren arabera kalkulatu da.

11. Kontziliazioa



0-3 adin-tartean, aintzat hartu da haur-eskolaren kostua; eta 4 urtetik gorakoen kasuan, eskolaz kanpoko jardueren, udako jardueren eta beste zaintza batzuen (umezaina) kostua ere kontuan hartu da.


12. Aparteko gastuak



Gainerako dimentsioetan sartu ez diren ezohiko gastuak, hala nola asteko ordainsaria, txangoak, urtebetetze-egunak, ustekabeko gastuak, etab.

1. irudia.

Hazkuntzaren prezioen eta kostuaren aldakuntza orokorra Euskadin (2024 vs 2022 eta 2018)



*Aintzat hartutako erreferentzia-aldia: 2022ko urtarriletik 2024ko urtarrilera. KPIa, 2021eko oinarriarekin.

Hazkuntzaren kostuaren bilakaera Euskadin 2024an (2018koarekin eta 2022koarekin alderatuta)

Hazkuntzaren kostua Euskadin 2024an 866 €-koa da hilean, batez beste, seme edo alaba bakoitzeko. Azken bi urteetan izandako prezio-krisiak bereziki eragin du seme-alaba bat hazteko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuen saskian. Azkeneko kalkuluan inflazioak sortutako zurrunbiloaren ondorioak hein txikian nabaritzen hasiak baziren ere, eguneratze honek prezioen ezohiko bilakaera-aldi baten ondorioak jasotzen ditu. 2022an, hazkuntzaren batez besteko kostua 769 €-koa zen, eta ordutik % 13ko igoera gertatu da, metatutako inflazio orokorraren gaineratik. Ikuspegia 2018ra zabaltzen badugu, urte hartan seme-alaba bakoitzeko kostua 645 €-koa zen hilean, pandemiaren eta prezio-krisiaren aurretik; beraz, hazkuntzaren kostua % 34 igo da 4 urte hauetan.

2022an, hazkuntzarako ondasunei eta zerbitzuei dagokien inflazioaren eta saski orokorrari dagokion inflazioaren arteko aldea (KPIan jaso) nabarmentzen bagenuen, 2024an berretsi egin dugu arrakala hori errepikatu egiten dela, inflazio orokorrak igoera handiak izan arren. Ziklo ekonomikoa alde batera utzita, **haurrak dituzten familiak dira prezioen bilakaerak gehien eragiten dienak, "hazkuntzaren inflazio espezifiko" jasaten baitute (hazkuntzari lotutako produktuen eta zerbitzuen saskiaren prezioen aldakuntza); inflazio orokorra baino % 35,5 handiagoa da Euskadin.**

1. taulan, hazkuntzaren batez besteko kostua banakatu da (hileko eta seme-alaba bakoitzeko) aurrez zehaztutako partida bakoitzerako, eta aukeratutako bi erreferentzia-uneei (2022 eta 2018) dagokienez izan duen bilakaera ere bereizi da. 2022tik hona gehien handitu diren gastuak elikadurarekin (% 25) eta etxebizitzaren hornidurarekin (% 21) lotutakoak izan dira. Garrantzitsua da aipatzea etxearekin lotutako gastuen (argia, gasa, ura...) kostuak igoera handia izan zuela 2022an izandako energia-eskaintzaren krisian, eta horrek azaltzen du urte horretan eta hurrengoan izandako igoera handi hori. Elikadura izan

zen prezioen krisian prezio-igoerarik handienak izan zituen sektoreetako bat, eskaintzaren hainbat faktoreren ondorioz. Hazkuntzaren kostuan duten pisu agregatuagatik ez ezik (seme-alaba bat hazteko 10 eurotik 4 baino gehiago elikadurara bideratzen dira, eta etxebizitzan eta horniduretan gastu gehigarria egiten da), prezio-igoera handienak dituzten partidak izateak argi islatzen du haurrak dituzten milioika etxetan inflazioak duen eragina, batez ere errenta ertain eta baxukoetan: kontsumorako joera handiena duten eta errentaren zati handiena oinarrizko ondasun horien kontsumora bideratzen duten familiak dira.

1. taula. **hazkuntzaren hileko batez besteko kostua 2024an, seme-alaba bakoitzeko, gastu-partiden arabera berezita. 2022 eta 2018. urteekiko bilakaera.**

	(%) 2024	(€) 2024	(€) 2022	(€) 2018	Diferencia (%) 22-24	Diferencia (%) 18-24	Diferencia (€) 22-24	Diferencia (€) 18-24
Elikadura	16,9	147	117	104	25	42	30	43
Higienea	2,8	24	24	22	-1	6	0	1
Arropa eta oinetakoak	6,8	59	53	48	11	24	6	11
Hezkuntza	15,24	132	114	100	16	31	18	32
Aisialdia eta jostailuak	4,3	38	35	32	9	21	3	7
Osasuna	0,7	6	4	4	62	66	2	3
Altzariak eta tresneria	1,73	15	12	11	24	45	3	5
Etxebizitza	18,24	158	131	75	21	111	27	83
Etxebizitzako gastu arruntak	6,12	53	48	31	11	73	5	23
Garraioa	1,73	15	19	15	-21	-4	-4	-1
Kontziliazioa	13,04	113	115	117	-2	-4	-2	-4
Aparteko gastuak	12,12	105	96	87	10,3	20	8	17
Guztira	100	866	769	645	13	34	97	221

Geuk egina, azaldutako metodologian oinarrituta (FAI 2023 eta datuen beste iturri batzuk, ikusi Eranskina)

Elikadura eta etxeko hornidurak ez dira metatutako inflazio orokorraren gaineratik hazi diren eta hazkuntzaren kostua gorantz bultzatzen duten partida bakarrak. Haurren eta nerabeen bizitza-etapa bakoitzerako beharrezkoak diren altzariak eta tresnak (% 4) eta arropak eta oinetakoak (% 11) dira prezioetan hazkunde handiagoa izan duten beste partida batzuk. Osasunaren arloko partidaren gorakada handia bada ere ehunekotan, ikusmen-osasuneko produktuen kostua barnean hartuta,⁵ kontuan hartu behar da beste partida batzuek baino pisu txikiagoa duela. Hala ere, produktu horiek, askotan, ustekabean zenbateko handiak ordaindu behar izatea eskatzen dute. BBIren arabera, haurren % 20,6 ustekabeko gastuei aurre egiteko zailtasun handiak dituzten familietan bizi da, eta kopuru hori 2022an baino ia 2 puntu (1,9) handiagoa da ehunekotan.

Hala ere, partida guztiek ez dute goranzko bilakaera izan. Garraioari dagokion gastua⁶ nabarmen murriztu da (-% 21), eta kontziliazioari dagokiona ez da asko handitu (% 2ko igoera); haur eta nerabeentzako garraio publikoaren prezioak murrizteko politikak edo haur-eskolaren doakotasunean izandako aurrerapen batzuk islatu dira, beraz. Kontuan hartuta politika horien bultzada, prezioen krisiak eragindako premien aurrean edo Europako Haur Bermearen Estatuko Ekintza Planaren babesean, eta, horrekin batera, Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleentzako eskola-garraioaren banakako esleipenak, nabarmena da aurrekontuan jasotako politika publikoen diseinuak garrantzi handia duela milioika familiaren hazkuntzaren kostua arintzeko, bai eta mugitzeko modu

5 Ikusmen-osasuneko produktuen (betaurrekoak edo lentillak, esaterako) erosketaren eta hileko amortizazioaren kostua haurren eta gazteen hainbat kasuistikaren (miopia, hipermetropia...) prebalentzia estimatua kontuan hartuta haztatu d

6 Garrantzitsua da kontuan hartzea partida honek seme-alaba batek garraioan dakarren gastu gehigarria hartzen duela barnean. Garraio publikoaren prezioak kontuan hartu dira, seme-alaba baten efektu gehigarria hobeto bereizi ahal izan delako erregaiaren eta ibilgailu pribatuen gastuan baino. Hala ere, metropoliak ez diren edo konektagarritasun txikia duten guneeetan, partida hori garraio pribatuko gastuaren arabera definitzen da, eta emaitza horiek ez dira aplikagarriak.

iraunkorragoekin, gurasoen lan-ibilbideekin edo epe luzeko eskola-etekin hobeeekin lotutako kanpo-efektu positiboak sortzeko ere.

Hazkuntzaren kostua, adinaren arabera

Beharrak aldatu egiten dira urteekin, eta, beraz, haur bat hazteko kostua ez da berdina haurtzaroko edo nerabezaroko zein etapatan dagoen kontuan hartuta. Horregatik, hazkuntzaren kostua lau alditan kalkulatu dugu: 0 urtetik 3 urtera, 4 urtetik 6 urtera, 7 urtetik 12 urtera eta 13 urtetik 17 urtera. 2. taulak aurretik azaldutako gastu-partiden adinaren araberako banaketa erakusten du.

Haur bat jaiotzeak gastua dakar altzarrietan eta bestelako tresnetan (sehaska edo haur-kotxea), eta arropa ere maiz aldatu behar izaten da, haurra hazten den heinean. Bizitzako lehen 3 urteetan, elikadura-beharrak bereziak dira, eta 0 eta 6 hilabete bitartean elikadura amaren esnea dela jotzen da, OMEk gomendatzen duenaren ildotik. 0 eta 3 urte bitartean, haur bat hazteko kostua hilean 674 €-koa da, haurtzaro eta nerabezaro osoko hazkuntzaren kostua baino txikiagoa. 2022ko azken kalkulutik, kostu hori % 18 handitu da, batez besteko kostuaren % 13ko igoeraren gainera (1. grafikoa). 3 urtetik beherakoen hazkuntzaren kostuan pisu handiena duten partidak honako hauek dira: kontziliazioa (haur-eskolak), etxebizitza (espazioa kide berri bati egokitzea) eta elikadura (2. irudia).

2. taula. **Hazkuntzaren batez besteko kostua, hilabeteka eta seme-alaba bakoitzeko, partiden eta adin-tarteen arabera (€, % eta bilakaera).**


	0-17 urte		0-3 urte		4-6 urte		7-12 urte		13-17 urte	
	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)	(€)	(%)
Elikadura	147	19,4	85	12,6	99	11,6	165	18,1	183	19,8
Higienea	24	3,3	67	9,9	12	1,4	14	1,5	16	1,7
Arropa eta oinetakoak	59	7,8	79	11,7	38	4,4	52	5,7	66	7,1
Hezkuntza	132	12,8	0	0,0	205	24,1	160	17,5	135	14,6
Aisialdia eta jostailuak	38	5,1	19	2,8	29	3,4	31	3,4	61	6,6
Osasuna	6	0,9	5	0,7	4	0,5	6	0,6	9	1
Altzariak eta tresneria	15	2,0	42	6,2	26	3	9	0,9	4	0,4
Etxebizitza	158	12,2	158	23,4	158	18,6	158	17,3	158	17
Etxebizitzako gastu arruntak	53	5,7	53	7,8	53	6,25	53	5,8	53	5,7
Garraioa	15	1,6	0	0,0	11	1,3	19	2,08	19	2
Kontziliazioa	113	15,4	160	23,7	129	15,21	129	14,1	61	6,6
Aparteko gastuak	105	13,9	5	0,7	84	9,9	113	12,4	158	17
<hr/>										
2024	866 €		674 €		848		911 €		925€	
2022	769 €		572 €		659 €		740 €		778 €	
2018	645 €		479 €		518 €		577 €		588 €	
2022-2024 (€)	97 €		102€		189 €		170 €		147 €	
2022-2024 (%)	13%		18%		29%		23%		19%	
2018-2024 (€)	221 €		195 €		330 €		334 €		337 €	
2018-2024 (%)	34%		41%		64%		58%		57%	

Geuk egina, azalduko metodologian oinarrituta (FAI 2023 eta datuen beste iturri batzuk, ikusi Eranskina).

Haurren hurrengo bizi-etapak aldaketa eta kostu gehigarriak dakartza. 4 urtetik 6ra bitartean, familiaren elikaduran sartzen dira, eta haurtxoaren gela haurgela bihurtzen da. Aldatu egiten dira aisia eta jostailu mota, eta nahiko maiz aldatu behar dira jantziak ere. Etapa honetan, hazkuntzaren kostuaren igoera % 29koa izan da 2022tik, hazkuntza osorako kostu agregatuaren antzeko mailan. Etapa honetan pisu handiena duten partiden artean, hezkuntza-etapetarako sarrerarekin, etxebizitzarekin, kontziliazioarekin eta elikadurarekin lotutakoak nabarmentzen dira. Elikagaien kostua gastu handieneko partiden artean egotea berria da 2024an 0 urtetik 6 urtera bitarteko haurren kasuan, eta partida horretako prezioen gorakadak haurrak dituzten familien ongizatean duen eragina islatzen du.


7 urtetik 12 urtera, hurrek oso azkar hazten jarraitzen dute. Zenbait aldaketa egiten dira logelan, haurtxoa zeneko zenbait altzari kentzeko. Janari kopuru handiagoa behar dute, eta erabat sartzen dira familiaren dietan. Etapa honetan, hazkuntzak 911 euroko kostua du hilean, eta azken bi urteetako inflazioaren eragina handiagoa da (2022an baino % 23 gehiago).

1. grafikoa. **Hazkuntzaren kostua, adin-tarteen eta bilakaeraren arabera (2022-2024).**



2. irudia.

**Hazkuntzaren hileko batez besteko kostuaren partida nagusiak,
adin-tarteen arabera**



Elikadura



Kontziliazioa



Hezkuntza



Aparteko gastuak



Etxebizitza


Antzeko zerbait gertatzen da nerabezaroan, 13 urtetik 17 urtera bitartean: jostailuak alde batera utzi dira, eta aisia lagunekin edo gailu teknologikoen bidez egiten da. Etapa honetan, aparteko gastuek gora egiten dute izugarri, eta gastuaren lehen postuan egotera iristen dira, etxebizitzaren kostuarekin batera; hazkuntzaren kostuaren % 17 izaten dira familientzat. Guztizko gastua ia % 20 igotzen denez, 13 urtetik 17 urtera bitarteko haurren hazkuntzaren kostua gehieneko balioetara iristen da: 925 euro.

Adin handieneko adin-tarte horietan (7 urtetik 17 urtera), elikadurak du kosturik handiena hazkuntzan. Partida horrek duen egiturazko pisua eta inflazioak eragin handia duela aintzat hartuta, 7 urtetik 17 urtera bitarteko hazkuntza da kostu gehigarri gehien eragiten duena. Egitate estruktural hori ez dator bat adin horietan hazkuntzari laguntzeko politikak gutxiago fokalizatzearekin.

Inflazioaren eraginaren azterketa familia-unitatearen errentaren arabera: iristen ez direnak eta gero eta zailtasun handiagoak dituztenak

Euskadin, hazkuntzaren kostua etengabe handitzea erronka handia da familia askorentzat, batez ere diru-sarrera txikiak dituztenentzat. Seme-alabak ardurapean dituzten familiek pobrezia- eta gizarte-bazterketako tasa handiagoak dituzte haurrik gabeko familiek baino. Eta azken urteotan, etxebizitza, elikadura, energia eta antzeko oinarrizko premien prezioak gora egin ahala, adingabeak ardurapean dituzten familia horiek finantza-presio gero eta handiagoari egin behar diote aurre. Hazkuntzaren kostua ordaintzeko behar diren diru-sarreretara iristea lortzen ez duten familiak gabezia-ziklo batean harrapatuta daude, eta horrek seme-alaben garapena arriskuan jartzen du, bizimodu duina eskainiko dien ingurune batean haztea eragotziz.

2. grafikoa. **Hazkuntzaren kostua, familiaren errenta erabilgarriaren ehunekotan (2022-2024).**



Azken estimazioan bezala, hazkuntzaren kostua onartezina da oraindik EAEko familien % 14rentzat (29.307 familia), ezin baitiote hazkuntzaren kostuari aurre egin, diru-sarrera guztiak horretara bideratuta ere. Eta Euskadiko familien % 42k (89.675 familia) zailtasun handiak ditu hazkuntzaren kostua ordaintzeko, beren errenta erabilgarriaren erdia baino gehiago zuzendu behar baitute kontzeptu horretara.

Garrantzitsua da aipatzea 2023ko Bizi Baldintzei buruzko azken Inkestan errenten (baxuenak bereziki) hazkunde jarraitua gertatu dela jaso arren gertatu dela fenomeno hori. Lanbide arteko gutxieneko soldataren igoerak eta, kontratu mugagabeen gehikuntzak⁷, EGGren hedapenak,⁸ DSBEn erreformak edo 0-3 urteko laguntza unibertsalak dezil baxuenen errenten hazkundera ekarri dute. Hala ere, prezioen gorakadak haurrak dituzten familiei eragin die batez ere, eta, nagusiki, errenta txikiak dituztenei.

Familiek hazkuntzara zuzendu behar duten errenta-zatia handitu egin da 4., 5., 6. eta 7. dezilen artean: transferentziei dagokienez, laguntza gutxien jasotzen duten biztanleria-segmentuak dira: ezin dira aukeratu BGDraiko eta DSBerako, eta ondorengoengatik minimoaren egungo diseinuaren onura ere ez dute jasotzen PFEZn, edo partzialki jasotzen dute. Hazkuntzari laguntzeko euskal sistemak duen defizita, neurri handi batean, errentaren banaketaren dezil ertain edo baxu horietan kontzentratzen da. Enplegu-tasa onak dituzten familia-unitateak dira, baina bizitzaren eta hazkuntzaren kostuak beren errentaren gero eta zati handiagoa kentzen diete. BGDren Haurrentzako Laguntza Osagarriak eta DSBek hautagarritasun-irizpide batzuk dituzte, eta horien barruan sartzen dira familia-mota horietako batzuk; beraz, hedapenean egindako aurrerapenek problematika hau arintzen lagunduko lukete.

7 *Manuel Hidalgo, Cinco Días, 2024.*

8 *Miguel Artola y Francisco Melis, eldiario.es, 2024.*

Azterketak hazkuntzaren kostu sozioekonomikoaren bi alderdi jasotzen ditu Euskadin: alde batetik, familia ahulenetan oinarritzen da, eta, bestetik, haurrak dituzten eta hazkuntzak eragindako gastuak ordaintzeko gero eta zailtasun handiagoak dituzten familietan. Egia bada ere errenta baxuenen hazkunderan aurrerapenak gertatu direla, lan-hobekuntzen eta babes-sistemen ondorioz, 18 urtetik beherako pertsonak dituzten familia-unitate ahulek zailtasunak dituzte oraindik ere, eta horrek arriskuan jartzen du haurren egungo eta etorkizuneko ongizatea, pobreziaren belaunaldien arteko transmisioa betikotzen baitu. Bestalde, seme-alabak dituzten euskal biztanleriaren segmentu gero eta handiagoek ikusten dute hazkuntzaren kostuak errenten gero eta zati handiagoak kontsumitzen dituela, haien ongizatea zailduz eta klase ertainaren etxeko ekonomia konprometituz. Garrantzitsua da bi ikuspegi horiek kontuan hartzea, bi dimentsio horietan aldi berean aurrera egiten dela bermatzeko: familia ahulenen egoerari heltzea, batetik, eta haurrak dituzten milaka familiari laguntza eraginkorragoa ematea, bestetik, haurren pobreziari aurrea hartuz.

Hazkuntzaren kostua arintzea: lanean jarraitzeko deia

Hazkuntzaren kostua zama ekonomiko onartezina da Euskadin haurrak dituzten familia askorentzat, eta, gainera, funtsezko inbertsioa da gure gizartearen etorkizunean. Haurren eta nerabeen hazkuntzan inbertitzea gizarte bidezkoago, aberatsago eta produktiboago baten alde egitea da. Hala ere, familiek erronka ekonomiko izugarriari aurre egin behar diete oraindik ere, eta gizarte-laguntzako sistema, handitzen ari den arren, oraindik ez da nahikoa familia horien premia gero eta handiagoei erantzuteko. Beharrezkoa da haurtzaroaren arloko inbertsio publikoa handitzea, familiei zuzendutako laguntza-mekanismoak indartuz –hala nola DSBE, BGB edo haurtzaroari zuzendutako osagarriak– eta hazkuntzari

laguntzeko politika unibertsalak zabalduz, bai eta hazkuntzarako prestazioa egungo 3 urteetatik 17 urteetara arte (adin hori barne) eramanez ere. Hori dela eta, Save the Childrenek gogorarazi nahi du garrantzitsua dela familia-unitate ahulenei laguntza emateko neurriak hedatzen jarraitzea eta, aldi berean, Euskadiko milaka etxetan hazkuntzaren kostua arintzea, haurrak eta haien baldintza sozio-materialak ekintza politikoaren erdigunean jarritz maila guztietan.

Hazkuntzaren kostu handiak agerian uzten du premia sozial hori. Hazkuntzari behar bezalako babesa emateko, hainbat alderdi hobetuko dituzten zeharkako politikak behar dira, hala nola jantokietarako eta haur-eskoletarako sarbide ekitatiboa, amatasun/aitatasun baimen eskuzabal eta besterenezinak edo zerga-sistemaren progresibotasun globala hobetuko duen erreforma bat. Hala eta guztiz ere, Save the Childrenen txosten honek haurren hazkuntzarako laguntza-maila egokiak lortzeko transferentzia-politika publikoen jarduera-ildo nagusietako batzuk baino ez ditu zerrendatzen, bereziki ahulenei laguntzera zuzendutakoak. Politika publikoen gomendio horiek administrazio-maila guztiak inplikatzeko dituzte, hala nola Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak edo udalak. Guztiek hartu behar dute politika integral eta koordinatuak diseinatzeko eta aurrekontuak egiteko eta gauzatzeko konpromisoa, bakoitzaren eskumenen esparruan, hala, Euskadiko familietan hazkuntzarako laguntza hobetzeko.

> **1. jarduketa-ildoak: hazkuntzarako prestazio unibertsala hedatzea**

Hazkuntzarako prestazio unibertsal edo ia unibertsal bat ezartzea funtsezko urratsa da seme-alabak dituzten eta ez dituzten familien arteko aldea murrizteko. Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak 2023an 3 urtera arteko seme-alabengatikoko prestazio bat onartzeko gauzatutako ekimena norabide egokian emandako urratsa da. Oraindik lehen ebaluaziorik egin ez den arren, prestazio horrek aukera emango luke Euskadin seme-alabak hazteak dakarren kostu handiaren zati handi bat estaltzeko. Azterlan honek argi



adierazten du hazkuntzak gero eta zailtasun ekonomiko handiagoak dakarztekiela milaka familiari errentaren dezil ertain eta baxuetan. Familia horiek dira hazkuntzarako laguntza-defizit handiena dutenak, eta ezin dira BGDren onuradun izan, errenta-irizpideak gainditzeagatik, eta ezin dira PFEZn ondorengoei lotutako kenkari fiskal klasikoez baliatu ere. Egoera hau Europarekiko egiturazko arrakala areagotzen du haurren pobrezia dagokionez. Euskadin abian dagoen prestazioak milaka euskal familiaren egoera hobetzen lagunduko du, haurren pobrezia aurrea hartuz.

Hala ere, 3 urte arteko gaur egungo diseinuak eta 2028ra arte iragarritako 7 urte arteko aurrerapenak ez dute aukerarik ematen kostu handienak dituzten adin-taldeetan hazkuntzak duen pisu ekonomiko arintzeko (7 urtetik 17ra). Prestazioaren benetako estaldura beste kontu bat da. Gaur egun, prestazioa izapide telematiko erraz baten bidez eskatzeko aukera ezarri nahi da, baina baldintzak ezartzeak, sinpleak izan arren, laguntzaren estaldura minimizatzen du. Prestazioa kenkari fiskal itzulgarri edo zuzeneko laguntza gisa eman daiteke. Hazkuntzarako prestazio bat unibertsal bihurtzeak edo hedatzeak esan nahi du, lehenik eta behin, haur guztientzako (haur izate hutsagatik) eskubide sozial bat dela aitortzen dela, eta ez da justifikatu behar eskubide hori merezi dutela “behartsuak direlako”. Baina, era berean, behar duen arengan benetan iritsiko dela bermatu behar da, familiei laguntzeko mekanismoen oztopoak, arrakala digitalak, estigmatik eta ondorio erregresiboak ezabatuz. Hazkuntzarako kenkari fiskal “klasikoen” edo ez-itzulgarrien egungo diseinuak gastu fiskal bat dakar, errenta-dezil altuetan kontzentratzen dena neurritz kanpo, dezil horietan hazkuntzaren kostuak errentaren zati txikiagoak eskatzen baititu. Horregatik, hazkuntzan oinarritutako zerga-arintze horien diseinua birplanteatu behar da, eta egungo prestazioa integratu eta automatizatu behar da. Neurri horrek administrazioen aurrekontuen bultzada izan behar du, eta autonomia mailako hainbat talderen babes politiko garrantzitsua izan behar du. Prestazio horrek familiei lagunduko lieke, hazkuntzarako kostuen zati bat ordainduz, oztopo burokratikoak ezabatuz eta etengabeko babesa emanaz, bereziki baliabide gutxien dituztenei.

> **2. jarduera-ildoak:** *DSBEren eta BGDren baterako babesa indartzea, haurtzaroaren ikuspegitik*

Lanbidek BGDren kudeaketa bere gain hartzeak bi programen arteko sinergiak hobeto aprobetxatzeko agertoki bat eskaintzen du. Bi programen estaldura eraginkorrak hobetzeko tartea du, eta, beraz, izapide burokratikoak murrizteko eta laguntzak emateko automatizazio-prozesuak ezartzeko bidean aurrera egin behar da.

Biek ala biek haurtzaroaren ikuspegia badute ere familia gurasobakar amadunentzako zenbatekoak eta osagarriak definitzerakoan, garrantzitsua da soldata-errentekiko osagarritasunean sakontzea, bai eta haurrak dituzten familien zenbatekoak egokitzea ere, programa horien onuradunen biztanleriaren segmentuak hazkuntzaren kostua hobeto estaltzeko.

> **3. jarduera-ildoak:** *Haurrei Laguntzeko Osagarria berriz diseinatzea eta berriz baloratzea adin handieneko tarjetarako*

BGDren Haurrei Laguntzeko Osagarriak, 2024ko irailean EAEko 14.000 etxetara iritsi zenak, funtsezko zeregina du haurren artean pobrezia murrizteko eta pobrezia aurre hartzeko, BGDrenak baino atalase nabarmen handiagoekin, hala, haurrak dituzten familiek aurre egin behar dieten kasuistikei erantzuteko. Hedapenean aurrerapenak egin diren arren, BGDren eskutik, azterketek oraindik hobetzeko tarte handia dagoela erakusten dute, familia hautagarri askok ez baitute osagarri hori eskatzen. Dezil baxuetan hazkuntzari laguntzeko duen potentzialak (baita BGD eskuratzeko aukerarik ez dutenentzat ere) beharrezkoa egiten du haren diseinua berrikustea, estaldura handiagoa lortzeko. Lanbidek prestazio hori eta DSBE kudeatzeak bi prestazioen arteko koordinazio eta estaldura eraginkor handiagoa ahalbidetu behar du, bai eta Haurrei Laguntzeko Osagarrien irismenaren hobekuntza ere, errentak bermatzeko sistemetarako hautagarri diren familietan.



Gaur egun, Hurrei Laguntzeko Osagarria 115 eurokoa da hilean 0 urtetik 3 urtera bitarteko adingabe bakoitzeko, 80,5 eurokoa 3 urtetik gorako eta sei urtetik beherako kasuan, eta 57,5 eurokoa sei urtetik gorako eta 18 urtetik beherako kasuan. Hala ere, datuek erakusten dute hazkuntzaren kostua handiagoa dela seme-alaba nerabeak dituzten familientzat, gastuak nabarmen handiagoak baitira. Horregatik, funtsezkoa da Hurrei Laguntzeko Osagarriaren zenbatekoak handitzea adin-tarte garestientzat, bereziki 13 urtetik 17 urtera bitarteko nerabeentzat. Hurrei Laguntzeko Osagarriaren balioa doitzuz gero familia horien kasuan, elikaduratik, hezkuntzatik eta garapen egokirako beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuetatik eratorritako gastuen proportzio handiagoa estaliko litzateke.



> 4. jarduera-ildoa: prestazioen eguneratzeak hazkuntzaren kostuaren adierazleekin lotzea

Prestazio kontributibo eta ez-kontributiboen multzoa aldian-aldian eguneratzen da, borondate politikoen arabera, eta horrek arrisku nabarmena dakar, hots, partida horiei lehentasunik ez ematea eta shock ekonomikoen aurrean izoztuta gelditzea. Administrazio-maila desberdinetako prestazioak eguneratzen direnean, askotan hainbat adierazleren arabera eguneratzen dira, hala nola IPREMen (Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa) edo KPI orokorraren arabera. Hazkuntzari laguntzeko politika eraginkorren diseinuak etorkizuneko dinamikak izan behar ditu kontuan, edozein testuingurutan eta borondate politikoak alde batera utzita nahikoak eta eraginkorrak direla bermatzeko. Hazkuntzari lotutako transferentzien kasuan, haurrak dituzten familiek inflazio orokorra baino handiagoa den egiturazko inflazio espezifikoari aurre egin behar diotenez, adierazle horrek hazkuntzaren prezioen indize instituzionalizatua izan beharko luke, eta hazkuntzaren gainkostuengatik konpentsazioa une oro bere helburua lortzeko nahikoa izango dela ziurtatu behar da.

> 5. **jarduera-ildo**: **etxebizitza duina eta eskuragarria bermatzea**

Prestazioek egoera zaugarrian dauden familia askok jasaten duten gainkarga finantzarioa arintzen lagundu dezakete etxebizitza bat eskuratzeko edo egokitzeko orduan. Horrekin lotuta, Save the Childrenek beharrezkoa ikusten du etxebizitzarako laguntzak eskuratzeko modua sinplifikatzea, zenbatekoak merkatuaren prezioari eta hazkuntzaren kostuari egokitzuz eta familia gurasobakar amadunei lehentasuna emanaz. Ildo horretatik, laguntzak izapidetzeko eta eskuratzeko aukera errazteko tresnak sortzeak berebiziko garrantzia duela ikusten dugu.

Halaber, “Hemen ez dago bizitzerik” izeneko 2022ko etxebizitzari buruzko txostenean azpimarratu genuenez, etxebizitza-politikei esker, Euskadi lurralde egokiada etxebizitza babestuen eskaintza areagotzeko programaberritzaileagoen irismena handitzeko. Alde horretatik, etxebizitza duina eskuratzeko aukera sustatzeko, herritarren ekimenak bultzatu behar dira, hala nola espazio komunak dituzten etxebizitza-komunitate elkartuak (Cohousing). Ekimen horiek ondorioak dituzte zenbait taldek lana eta familia uztartzeko orduan, hala nola familia gurasobakar amadunek, EAEko familien % 10 diren aldetik.

> 6. **jarduera-ildo**: **Haur Bermearen Euskal Estrategia garatzea, Euskadin berriazko plan operatibo bat zehaztuz.**

Europako Haur Bermea (EHB) Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendio bat da, 2021eko ekainaren 14an estatu kideek aho batez onartu zutena, eta helburua da haurren pobrezia zikloa haustea, pobrezia edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden haur eta nerabe guztiak oinarritzeko sei eskubide edo zerbitzu eskuratzeko aukera izango dutela bermatzeko: hezkuntza eta lehen haurtzaroko arreta, hezkuntza eta eskolaz kanpoko jarduerak, osasun-laguntza, gutxienez doako otordu osasungarri bat eskola-egun bakoitzeko, elikadura osasuntsua eta etxebizitza egokia. 2023ko abuztuan, Europako Haur Bermea (2022-2030)



ezartzeko Estatuko Ekintza Plana onartu zen, baina plan operatibo horien garapena oraindik ez da zehaztu autonomia-erkidegoen mailan. Hazkuntzaren kostuaren hainbat dimentsio asmo handiz landuko dituen erantzun politikoa eskaini ahal izateko seme-alabak ardurapean dituzten familientzat eta, bereziki, egoera sozioekonomiko ahulenean daudenentzat, funtsezkoa da onartu berri den Haur Bermearen Euskal Estrategia sistematizatzea eta hedatzea.

Metodologiari buruzko eranskina

Azterlan honetan erabilitako estrategia metodologikoak 7 pauso ditu, eta 5. taulan laburtu dira pauso horiek.

Lehenengo, bost familia mota bereizi dira, kontuan hartuta familia guraso bakarrekoa den edo haurrak hazteaz bikotea arduratzen den, bai eta familia bakoitzak ardurapean zenbat haur dituen ere. Ez dauka kostu bera seme edo alaba bat hazteak eta bi edo hiru hazteak, eta ez dituzte behar berak guraso bakarreko familiek eta bikoteek. Bigarrenik, lau adin-tartetan bereizi dira haurrak: 0 urtetik 3ra, 4 urtetik 6ra, 7 urtetik 12ra eta 13 urtetik 17ra. Garrantzitsua da bereizketa hori egitea, haurrek eta nerabeek urteen joanean dituzten beharrak desberdinak direlako.

Hirugarrenik, 12 partida bereizi dira gastuetan, eta horietako bakoitzeko gastuak desberdin zenbatu dira; ondorengo azpiatalean azaldu ditugu horiek zehazkiago. Partida horiek elikadura, higiena, arropa eta oinetakoak, hezkuntza, aisia eta jostailuak, osasuna, altzariak eta tresneria, etxebizitza, etxebizitzaren kostu arruntak, garraioa, kontziliazioa eta aparteko gastuak dira. Laugarrenik, Familia Aurrekontuen Inkestako (FAI) lagina mugatu egin da, horrela hazkuntzaren kostuaren kalkulua egiteko adierazgarriak diren familien lagin bat osatzeko.⁹

⁹ Azterlan honetan, Familien Aurrekontuen Inkestaren azken bi edizioetako datuak erabili dira, 2022koa eta 2023koa (eta biak aurreko urtean bildutako datuei buruzkoak dira). Informazioa biltzeko bi urte sartzeko arrazoia zera da: emaitzak fidagarriak izan daitezten nahiko handia den lagin bat lortzea. Kontuan izan behar da 2023ko FAIren datuak 2021eko erroldaren arabera eguneratutako biztanleriaren zifretatik abiatuta landu direla. Populazio-aldaketa horrek eten egiten ditu orain arte argitaratutako datu-serieak, eta konparazio homogeenak egitea eragozten du horrek. 2022ko datuak berriro kalkulatu dira, aurreko urtearekiko aldakuntza-tasak lortzeko.

Bosgarrenik, FAI erabiltzen ez duten partidetarako, produktuen zerrenda bat ezarri da horietako bakoitzerako, bai eta produktu bakoitzeko kopuruak ere, eta Espainiako lurralde osoko zenbait saltokitan bilatu dira prezioak. Seigarrenik, FAIren xede den lagina eta partidetak ondasun eta zerbitzuen saskiak zehaztu ondoren, gastuak kalkulatu dira, adin-tarteen arabera. Azkenik, datu horiek guztiak adin-tarteen eta partiden ikuspegitik multzokatu dira, eta behin betiko emaitzak lortu dira.

1. taula. **Hazkuntzaren kostua kalkulatzeko metodologiarako pausoak**

1	Familien tipologiaren definizioa	Bost familia motaren definizioa: heldua seme edo alaba batekin; heldua bi seme-alabarekin; bikotea seme edo alaba batekin; bikotea bi seme-alabarekin; eta bikotea hiru seme-alabarekin. Partida batzuetan, bereizi ezin direnez seme-alaben gastuak eta helduenak, beste bi tipologia erabili dira, konparazioak egiteko: seme-alabarik gabeko heldua, eta seme-alabarik gabeko bikotea. ¹⁰
2	Adin-tarteen definizioa	Lau adin-tarteen definizioa: 0 urtetik 3ra, 4 urtetik 6ra, 7 urtetik 12ra eta 13 urtetik 17ra.
3	Gastu-partiden definizioa	Partida hauen definizioa: elikadura, higiena, arropa eta oinetakoak, hezkuntza, aisia eta jostailuak, osasuna, altzariak eta tresneria, etxebizitza, etxebizitzaren kostu arruntak, garraioa, kontziliazioa eta aparteko gastuak.

¹⁰ Arrazoi nagusia hau da: aintzat hartu diren partida batzuetan, ezin dira bereizi helduek egiten duten kontsumoa eta haurrek egiten dutena. Adibidez, eskola-garraioa, eskola edo antzeko partidak eskusiboki haurren eta nerabeen gastuak dira; aldiz, etxebizitzaren eta hornidura-gastuen atalean, ezin dira bereizi. Beraz, partida horietan haur eta nerabeei legokiekeen gastua egozteko, bereizketa hau erabili da: seme-alabarik gabeko familia bat eta bere ardurapean seme-alabak dituen familia hori bera (helduen kopuruari dagokionez).

4	FAIko lagin adierazgarriaren aukeraketa	Hauek dira aukeraketarako irizpide nagusiak: (i) familiak, lehen puntuaren definizioaren arabera; (ii) gutxienez heldu bat lanean ari da familian;* (iii) ardurapeko seme edo alabatza hartu da 18 urte arteko edozein adingabe, lanean ari ez dena; (iv) ez dira ardurapean adingabeak dituzten familiatzat jo 16 edo 17 urteko adingabeak lanean ari direnean.
5	Ondasun eta zerbitzuen saskiaren aukeraketa	FAIn erabiltzen ez diren partidei dagokienez, beste datu-iturri batzuetan eta estatuko saltokietako prezioen kontsultan oinarritutako produktuen eta kantitateen zerrendak ezarri dira.
6	Partida bakoitzaren kalkulua	Partida bakoitzean, atal horri dagokion kostua kalkulatu da, aurrez ezarritako irizpideen arabera.
7	Agregación de los cálculos	Aurreko pausoko kalkuluak erantsi dira, guztizko emaitzak lortzeko.

* Bereizketa hori egiteko arrazoia hau da: partida batzuetan, langabezia-egoerak beherantz bidera dezake gastu osoa. Gainera, kontziliazioko partida kalkulatzeko, beharrezkoa zen aukera hori kanpoan uztea.

Azkenik, azpimarratu behar da 2023ko estatuko BBI inkestan oinarritu garelako Euskadin hazkuntzaren kostuak barnean hartzen dituen ondasunak eta zerbitzuak kalkulatzeko. Izan ere, Euskadiko lagina (4.500 familia) adierazgarria da, datuak 2022ko PGDI inkesta autonomikokoak baino berriagoak dira, eta beste autonomia-erkidego batzuekin konparazioak egiteko aukera ematen digu. Hala ere, txosten honetan PGDIren datu garrantzitsu batzuk ere jasotzen dira.



Edita:

Save the Children España
Noviembre 2024

